

ADI: Koronabirusaren krisiak sortu duen egoera dela eta, Berriak Triforiotik argitalpenaren zenbaki hau formatu digitaletan baino ez da banatuko. Ez da inprimatutako bertsiorik egingo. Barkamena eskatzen dizuegu horrek eragin ditzakeen eragozpenengatik eta gure informazio buletinaren ohiko banaketa ahalik eta azkarren berreskuratzeko itxaropena adierazi behar dizuegu.

Beirateen Plan Gidatzailea, jardunbide onen erreferentzia

British Society of Master Glass Painters (Maisu Beiragileen Britainiar Elkarte) ezagunak, Kontserbazio Jardunbide Egokiei buruzko eztabaida-foroan sartu du Fernando Cortés Pizanok eta Mikel Delikak egindako Santa Maria Katedraleko beirateei buruzko Azterlana eta Plan Gidatzailea. Erakunde horren helburua horrelako elementuak berreskuratzeko edozein jardura gidatu behar duten baldintza etikoei eta lanekoei buruzko definizio aditua lortzea da.

Ikuspuntu horretatik, Fernando Cortés Pizanok Gasteizko tenpluan egindako lana ekarri du eztabaidara. "Beirateen Plan Gidatzailea egiteak urtebete baino gehiagoko lana eskatu zigun Mikel Delikari eta niri. Uste dugu oso tresna baliagarria dela artearen historialarientzat, beirate kontserbatzaileentzat eta arkitektoentzat", adierazi du Cortesek British Society of Master Glass Painters erakundearen webgunean.

"Katedraleko beirateei buruz ordura arte genuen ezagutza areagotzea eta sakontzea eta informazio baliagarria eta eguneratua lortzea zen gure helburu nagusia, esku-hartze integrala egin ahal izateko", adierazi du zaharberritzaileak. Izan ere, egindako lanak, Fundazioaren webgunean kontsulta daitezkeen txosten osoa sortu zuen: <https://bit.ly/vidrCat>



Horrela, Pizanok eta Delikak Santa Maria Katedralean egindako lana are haratago iritsi da, sortu berri den Asociación para la Restauración - Conservación de Vidrieras de España - ARCOVE elkartearen jatorrian baitago. Pizano eta Delika dira horren aitzindariak, eta elkarteko Presidente eta Presidenteordea, hurrenez hurren.

Aintzatespen profesionalaren bila

Mikel Delikak, Fernando Cortesekin batera, Plan Gidatzaileko tokian-tokiko azterketa egin zuen eta elizbarrutiko artxiboan murgildu zen. Nabarmentzekoa da Carlos Muñoz de Pablos artistak 60ko hamarkadan egindako lana, baina urte horietan zalantzarriagoak diren beste jarduketa batzuk ere egin zirela aitortu behar da, itxuraz behin-behinekoak izan behar zuten "beirate geometrikoak", besteak beste.



Edonola ere, Delikak aldarrikatzen duena errehabilitazio lana arlo horretako adituek gidatzea da. "Europako gainerako tokietan ez bezala, hemen ez dago beirateen arterako titulaziorik", dio. Erantzuna ARCOVE sortzea izan da. Elkarrearen helburuak, Espainiako beira-ondareari buruzko kontzientziario handiagoa sortzea, haren inbentarioa eta azterketa sustatzea, kontserbazio-egoera hobetzea, eremu horretan homologatutako goi-mailako ikasketak sortzearen alde lan egitea eta kolektibo horren aintzatespen profesionala lortzea dira.

Xehetasuna

Belatxikiaren habitat naturala

Mendeetan zehar katedralak Gasteizko muinoan izan duen presentziak inguruarekin integrazio naturaleko prozesua sortu du. Izan ere, tenpluko hormak eta teilatuak hegazti txiki baten habitat natural bihurtu dira: belatxikia. 2018an, Gasteizko alde zaharreko puntu horretako ohiko fauna aztertzeke katedralaren inguruan egindako laginketan 16 belatxiki erregistratu ziren.

Presentzia handi horren ondorioz, Katedralak kalifikazio altuena jaso zuen espeziaren Kontserbaziorako Interese Mailan, eskaintzen dituen ugalketa-aukerak ere kontuan hartuta. Azterlanak ondorioztatu zuenez, espezie horri laguntzeko neurri gisa, estalkiaren zati bat berritzeko etorkizuneko obrak zazpi habia-kaxa instalatzea



kontuan izan behar zuen, eta Fundazioak neurri hori kontuan hartuko du birgaitze integraleko prozesuaren barruan.

Jardueren atzerapena

Apirilerako aurreikusitako jardueren agintariak agindutako osasun larrialdi egoeraren erabateko eragina jasoko dute, eta ez da ekintza publikorik egingo, bisita gidatuak barne.

Agintariak egungo alarma-egoera amaitu dela eta pertsona guztien segurtasuna bermatu ondoren Fundazioak bere jarduerak berriro indarrean jarriko dituela iragarriko du.

Zaharberritze jasangarria

Katedraleko estalkiak birgaitzeko lanak ingurumena errespetatzen duten eraikuntzako jardunbide egokien adibide dira; izan ere, klima epeleko egurrak erabiltzen ari dira, iraunkortasun-irizpideen arabera gertu landutakoak, eta, gainera, eraikinaren beraren egur historikoa osorik aprobetxatzen da.

Estalkien egitura, gertuko basoetan moztu eta baliabide artisauen bidez garraiatu, landu eta obran jarritako ehun eta laurehun urte bitarteko haritzezko habeekin eta euskarriekin armaturik zegoen. Orain berreskuratu egin da, ondo eta intsektuetatik garbitu, olio ekologiko berriekin babestu eta berrezarri, eraikuntza berriaren parte nagusia osatzeko. Horrela, leku berean eta funtzio berarekin berreskuratzea lortzen da, eta baita eraikitako ondarea errespetatzeko irizpideekin kontserbatzea ere.

Egur zahar horiekin konbinatuta, penintsularen iparraldeko basoetatik ekarritako haritz gorriko edo zuriko pieza berriak gehitu dira, Gasteiztik hogeita hamar kilometro eskasera dagoen Olazti menditik, batez ere. Kontzesio bitartez modu jasangarrian ustiatutako baso komunalak dira, eta zorrotz kontrolatzen dira egurra basoetatik ateratzeko eremuak eta denborak eta moztutako zuhaitzak ordezkatuko dituzten kimu berrien birlanaketa. Klima epeleko egurra denboran iraunkorragoa izango da, eta beste ehunka urte igarotzen direnean, garai horretan Santa Maria kontserbatzeaz arduratuko direnek ere berriro aprobetxatu ahal izango dituzte.

